

327/2016 ALKATE DEKRETUA

2016ko azaroaren 11koa

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jaunak, Idiazabalgo Alkate udal buruak, Sektore Publikok Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzak Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren arabera,



IKUSIRIK

Kontratuaren gaia: IDIAZABALGO UDALARI HIRU INFORMAZIO PUNTU FULL COLOR, HORIETAKO BAT AURREZ INSTALATUTAKO INFORMAZIO PUNTU MONOKROMOA ERALDATUZ, BARNE MONITORE BATEN HORNIDURA, GARRAIOA ETA INSTALAZIOA, UDAL INFORMAZIOA EMATEKO, ETA INFORMAZIOA ZINTZILIKATZEKO HAMAR (10) PANEL INFORMATZAILE MUTUEN KONTRATUA, PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ, ESLEITZEKO ESPEDIENTEA.

Jardunbidea eta Esleipen Modua: *Negoziatua publizitatearekin; eskaintza ekonomikoki onuragarriena, esleitzeko hainbat irizpide.*

Izapidea: *Presazkoa*

Parte hartzeko gonbita eskatzeko iragarkiaren argitalpenaren data kontratugilearen profilean: *2016/10/11n.*

Idiazabalgo Alkate Udalburuak, urriaren 11ko 285/2016 Dekretu bidez erabaki zuen hiru informazio puntu full color (horietako bat aurrez instalatutako informazio puntu monokromoa eraldatuz), barne monitore baten hornidura, garraioa eta instalazioa udal informazioa emateko, baita informazioa zintzilikatze hamaik (10) panel informatzaile muturena ere, kontratatze espedientea hasia. Era berean, kontratazio-jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzea, lizitazio honetan parte hartu nahi zuten enpresariak eskatu ahal zezaten prozedura honetan parte hartzea; horretarako, 5 egutegi-eguneko epea izan zuten iragarkia kontratugile profilean aurkeztu zen biharamunetik aurrera.

Ondoren, gonbidatutako lizitatuak euren proposamenak aurkezteko 8 egun naturaleko epea izango zuten.

II. Iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko azaroaren 11n.

III. Honako lizitatuak hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

1. lote.- Panel elektronikoak udal informazioarako eta monitore bat udaletxean:
Global Edukinet Service S.L-k (2016/10/27an, 375. zk.ia)
A.S.E.L S.L-k ((2016/10/27an, 402. zk.ia)

2. lote.- 10 Informazio-panel mutu:
Rotudenak S.Coop-k (2016/11/04an, 403 zk.ia).

KONTUAN HARTURIK

Kontratazio Mahaiak, 2016ko azaroaren 11n egindako proposamena, Administrazio-baldintza zehatzen agiriaren 13. eta 15. klausuletan xedaturikoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 151.2 artikuluan xedatutakoa.

EBAZTEN DUT

LEHENEA.- 2. lotean (10 informazio panel mutu) ekonomikoki onurarik handiena aurkeztu duen lizitatzailerari, Rotudenak S. Coop-ri, **ERREKERIMENDUA** luzatzea, agiri hauek aurkez ditzan gehienez ere **BOST (5) egun balioduneko epean**, errekerimendu hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita:

1. Lizitatzailerak aurkeztu beharko du:

- ❖ **Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko: Sozietatearen eraketako eskrituraren edo agiria, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez.** Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauen arabera arautzen diren adierazita egon beharko du eta, gainera, pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon.
- ❖ **Kontratua sinatzeko pertsonaren NAN eta horretarako eskuetsitako ahalordea.**
- ❖ Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. atalean adierazitako kontratatzeke debekurik ez dutelako aitorpena, 1. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
- ❖ **Enpresariaren kaudimena**, administrazio-baldintza zehatzen orriaren 10.3 klausulak xedatutako moduan.
- ❖ Bere **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela** ziurtatzen duen agiria;
- ❖ **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.**

- ❖ Kontratuaren xedea den jarduera egiteko estaldura ekonomiko nahikoa duen **erantzukizun zibileko aseguruaren poliza EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (150.000 €)** harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, **eta** aseguruaren ordainketaren egunean dagoela ziurtatzen duen frogagiria.
- ❖ **LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMOKO (478,83 €)ko_bermea** ezartzea.

BIGARRENA.- Interesdunari probidentziaren berri ematea, eta jakinaraztea, tramite-egintza izaki, ezin dela errekurtsorik aurkeztu horren kontra.

Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, lizitatuzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuzaileari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari

jarraituz. Hori egon ezean, prozedura hutsik geldituko da.

HIRUGARRENA.- Idiazabalgo Udalbatza Plenoari horren berri ematea.

Ebazpen hau izapide-egintza da eta horren aurka ez dago errekurtsorik jartzetik.

**ALKATE UDAL BURUAK
HARTZAILE**
*Ioriitz Imaz Baztarrika
Matxin*

Nire aurrean,
IDAZKARI KONTU-
Isabel Fuertes